Idoia 5gn disko
Iberia
1968

**ZALDIÑO**

Zaldiño, zaldiño,
Izaba'ko bortuan
libre bizitako
ebiltako mendian.

Amaren esne bero
pikuetan elur;
aitaren irrintziri
aitzetan odoi.

Oxanean basakumeak,
airean bela beltza,
odei-artean arranoa
libertadean.

Bidean asto umilde,
mando ta zamaria,
bei, ardi ta txakur
zerbutxaria.

¿Non zaude zaldiño?
Ez zaude bortuetan;
zore ama dago
nexarrez mendietan.

Balenzia Erreinoan nago
karro baterik tiratan;
saltu nei gaztezaroan
ebiltan naz sufritan.

Libertade galtuz geroz
txiki balio du bizi;
izanen zen obeago
goiko mendietan il.